

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute 2017. urterako

Iñaki Caminoren "Amikuze eskualdeko eskuara" liburua ere aurkeztu dute, iazko hitzarmenaren barruan egindakoa

Astelehena, 2017.eko ekainak 19

Ana Ollok, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak, eta Andres Urrutiak, Euskaltzaindiko euskaltzainburuak, Nafarroako Gobernuaren 149.000 euroko ekarpen bat jasotzen duen hitzarmena sinatu dute gaur goizean.

Nafarroako Gobernuak, Euskarabidearen bitartez, eta Euskaltzaindiak, kultura-

proiektuak egiteko lankidetzarekin jarraituko dute 2017. urtean. Xede horretarako, lankidetzaren oinarri orokorrak ezartzen eta bi entitateek hartuko dituzten konpromisoak arautzen dituen hitzarmena berri dute gaur goizean bi entitateek Nafarroako Jauregian.

Hitzarmen horretan, Nafarroako Gobernuaren 149.000 euroko ekarpena jasotzen da, eta sinatzeko ekitaldian Andres Iñigok, Euskaltzaindiko ordezkari gisa, eta Mikel Arregik, Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak ere parte hartu dute.

Ekitaldian Iñaki Caminoren "Amikuze eskualdeko eskuara" liburua ere aurkeztu dute, entitatearekin iaz sinatutako hitzarmenaren barruan egindakoa. Mendaur bildumaren barruan argitaratu da eta Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak bilduma hori abian jarri zutenetik hamaikagarren lana da. Egileak azaldu duen moduan, Nafarroa Behereko herri horren (Amikuze) euskararen azterketa filologiko sakona egiten du bere lanean.

Euskararen onomastika, toponimia eta hiztegiari buruzko azterlanak

Zehazki, lau proiektu finantzatzeko erabiliko da diru-laguntza:

1. Euskal Corpus Onomastikoari buruzko lanarekin jarraitzea. Aurrekontua 66.435,22 euroko da.
2. Onomastika eta Toponimiari buruzko lanekin jarraitzea. Aurrekontua 17.891,07 eurokoa da.



Ollok kontseilaria eta Urrutia, hitzarmena sinatu eta gero, Caminoren ondoan. Atzean, ezkerretik eskuinera: Iñigo eta Arregi.

3. Euskalkiei buruzko "Euskara ibiltaria" erakusketa, Nafarroako Parlamentuarekin lankidetzan egindakoa. Aurrekontua 10.000 eurokoa da.

4. Joakin Lizarraren hiztegiaren azterlana. Aurrekontua 54.673,71 eurokoa da.

Aurkezpenean hauxe nabarmendu du kontseilariak: "normalizatzeko eta lankidetzan aritzeko helburuari erantzuten dio, euskara gure Komunitateko berezko hizkuntza bat gisa garatzeko eta aztertzeke". Horrez gain, hauxe adierazi du: "ez dugu nahi, euskara, laborategi filologiko batean aztertu eta gordetzen den erlikia eta kultur altxor bat izatea. Horregatik, Euskaltzaindiaren helburu bera dugu, hots, gure hizkuntzaren gizarte-estatusaz arduratzea".

Euskaltzaindiaren sortzailea

Nafarroako Foru Aldundia Euskaltzaindiaren sortzaileetako bat izan zen 1918. urtean, euskara garatzeko helburuarekin. Harrezkero, Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko harremanak ez du etenik izan. Horri esker, kultura-erakundearen sustapena eta laguntza izan duten hainbat ekimen abian jarri dira.

Gaur sinatu duten hitzarmenarekin Gobernuak erakunde akademiko horri ematen zizkion diru-laguntzekin jarraitzeko aukera egongo da. Horrela, Euskaltzaindiak euskararen garapenarekin eta araudiarekin zerikusia duten gaiak aztertzen eta zabalitzen jarraitu ahalko du.